



EUSKAL POESIAZ ZENBAIT AGERPEN ETA KONPARAZIO

XABIER LETE

Poesia, historian zehar, literatur generoetan zaharrenetakoa da. Zibilizazio zaharretatik hasi, aintzinako Grezia klasikotik pasa, Erdi Aroko poesia erlijioso, gudatiar eta profanoa ikustatu, eta, azkenik, renazimentutik honuntz poesia modernoak ibili duen bidea kontuan hartu ondoren, garbi adierazi liteke poesiak, eta literaturak orokorki, garaiean garaieko funtzio artistiko eta gizartetsu bat bete duela; eta funtzio hori, moldakizun eta kontrajartze askoren erdian, gutxi gora behera gizartearen aldaketa sozialei loturik joan dela. Horrela izanik, gaur poesiari buruz guk eduki ditzazkegun iritziak ezin litezke, iñundik ere, nobedade hutsa izan. Hala ere, horrek ez du esan nahi poesiaren itxura eta egiteak repetizio hutsa direnik. Hain zuzen, guk bizi dugun eta Euskal Herriak bizi duen garai historikoa oso berezia da. Horrela izanik, orain arterainoko historiaren ondorenak gaur berritxurutzen diren bezala, poesiaren betebeharrak eta moldaketek ere garaia diokion aidea hartzen dute, eta eginkizun horren xehetasunak teoriarik eta praktikan argitzen dira.

Hori horrela gertatzen denez gero, poesia eta arteari buruz ikusmolde desberdin eta askotan kontradiktorioak egon liteke. Eta, garbiago esateko, badago. Euskal Herriko poesia gaurkotiarra, hemeretzigarren mendearen bukaeratik orain arte egin dena, berezi xamarra izan da. Gure herriaren historia ere berezia izan den bezala. Gure historia, Europako kontestuan, historia atzeratua izan den bezala, gure literatura ere literatura atzeratua izan da. Frantziako erreboluzioarekin hasi eta karlista gerrateetan nabari diren gure herriaren nahasmendu eta hutsune politikoak, gutxi gora behera hemeretzigarren mendearen bukaeran, abertzaletasunaren sortzearekin hasten dira gainditzen.

Horrekin batera, euskal literatura berria bere itxura propioa hartzen hasten da, eta naiz itxura hori, forma eta gai aldetik, oraindik ahula izan, ezin uka liteke helburu politiko zehatz bat edukitzeak garai hartako literaturaren itxuratzailerei batasun eta lanerako gogo burrukatzaile beharrezko bat eman zela. Hura benetako pizkunde edo berbikundea izan zen. Naiz eta garai hartako produzioa alde askotatik begiratuta kritikagarri eta akasdu izan, ez dezagun inoiz ahaztu geroago hobeago eta nahasiko ziren espresioen lehen urratsa izan zela.

Mogimendu hura, hoberenek eta askeenek ere berbikundetzat zedukaten. Honela zion, adibidez, Xabier Lizardik bere poema batean:

Izotz-ondoko eguzki neguaren parre
olerkariak noizpait iri goratzarre.
Emeki duk itxaroz piztu garai larre
udaberri lamiek larreon batzarre.

eta poema berean, aurrerago:

Izotzak estali zuen gure Euskal Erria
mintzo ozenak zabaldu berbikun berria;
itzal-zokondoetan, lore, izotz bitxia
baiñan aren gaiñetik jauntzen eguzkia.

Garbi eta oso ondo adierazia dago, «mintzo ozen» hori aberzaletasun sortu berriaren mintzoa dela. Eta mintzo horrek zabalzen duen «berbizkunde berria», berbizkunde politiko eta kulturala; kultura horren barruan literatura eta poesia sartuz.

Baina gure berbizkunde hori, historia objetibotik begiratuta, berandutiarra zen bezala, literatura eta poesia ere nahiko berandutiarrak ziren. Esate baterako, hemeretzigarren mendean eta ogeigarrenaren hasieran Europako literaturan gertatutako mogimendu eta erak, Euskal Herrian ia zeharo ezezagunak genituen. Mogimendu haien parekorik ez zen hemen gertatu.

Gaur poesiari buruz ari geranez gero, oso beraziki ikusi behar genituzke aipatutako denboraldi hartan Europako nazio burges aurreratueta gertatutako poesia-forma berriak. Baudelaire baten erromantizismo ondorena; Mallarmek martxan jarritako «modernismoa» deitu zen joera. Horren ondoren, Paul Valéry, Eliot, Juan Ramón Jiménez eta horrelakoek erabilitako sinbolismo hertsia, etabar... Espainian, esate baterako, modernismoa Frantziako moldeetatik hartu eta eragin zuena Ruben Darío izan zen, eta gutxi gora behera poesia-molde horri jarraituz eman zen, bai ta ere, ezagutzera, Espainiako «generación del 27» deitua izan zen poeta sail famatua (García-Lorca, Rafael Alberti, Luis Cernuda, Jorge Guillén, etabar). Azken hauen poesia, kultura klasiko oso ornitua eta imaginez hertsia izan zen sarritan. Hala ere beren moldeetatik, garai hartako erreallitate herriko bati erantzun estetiko baliotsu bat ematen saiatu egin ziren, eta, neurri aundi batean, nahi hori ondo bete zuten.

Hala ere, hau guzti hau, izen eta «ismo» horiek, hor zehar zer gertatu zenaren exenplutzat erabili ditugu. Euskal Herriko poesia martxan jarriberri hartan aipatutako mogimendu horien parekorik ez zen gertatu.

Hutsune horiek, beste hutsune asko bezala, ez dira euskeraren berezko akats, espabilatu batzuek uste izan ohi dutenez, gure herriaren historiaren pareko ahulezia pasakorra baizik. Desmoldatze historikoak, alegia.

Nola nahi dela ere, orduko euskal poesian gauza onik egin zen. Garai hartako poeta hobereenen artean begiratuta, hor ikusten dugu Xabier Lizardi bat. Lizardiren poesia, nahiz lirikoa, funtsean errealista da. Lizardiren lirika fiña, errealtatearen deskribizio inpresionista baten zerbitzura dago. Bere poesia inpresionista tankerakoa zen, naturalezari eta maitasunezko sentimenduei doazkien gaietan beintzat. Bere metafora eta imaginak aberats eta ugariak izanik, ia beti errealtate gizartetsu orokor bati loturik daude (bere azken denboretako poesietan, zer esanik ez).

Baina handik aurrera European, eta Euskal Herrian ere bai, gauzak aldatuz joan dira. Aldakuntza horiek gure herriaren heziketarekin zer ikusterik badute, eta badute ikusterorik literatura eta poesia azken berrogetamarren bat urte hauetan sufritu eta gozatu dituen kontradizioekin. Izan ere, Europako lehen gerlate nagusiaren ondoren, orain arte aipatu ditugun jokabide eta eskola literario horien aurka, edo horien aurrean beintzat, beste egite mota bat oso bereziki nabarmendu zen poesian, eta molde eraberritu hori poesia errealistarena izan zen. Poesia errealista ez da ogeigarren mendeko asmakizuna; hala ere arrazoi sozial eta burruka oso sakonak zirela medio (lehenbiziko estatu sozialistaren eraikitzea, etabar), garai hartan berriro piztu zen. Errealismo hori definizio politiko aldetik azken mugetara eramanta, zenbait tokitan eta zenbait urtez «erreallismo sozialista» deitua izan da; eta jokabide berri horrek, poesiaren betebeharreri herriko bati burrukalariak aipa-

tzeaz gaiñera, sozialismoaren apolojia edo laudorioa egitea bere helburutzat hartu zuen.

Poesiaren joera horren eta lehen aipatutako arteko eztabaida eta iskanbillak oraindik oraingo gertakizun eta anekdota ditugu. Eta euskaldunok, gutxi bada ere, geure poesiarekin iskanbilla horietan sartu egiten gera, joera eta bide zuzen zehatzak arkitu nahiaz. Zalantzik gabe, gerla osteko euskaldun poesia orain urte batzuetatik honuntz aldatzen hasia zen. Funtsean gabeko eskapismo lirikoak (nolabait deitzearen) alde batera utziz, euskal poesian geure herri zapalduaren problematika erabiltzeko nahia nabaitzen da (Salbatore Mitxelenaen poesian, esate baterako). Beste alde batetik, Jon Miranderen jardunak adierazten duenez, euskal poesia, poliki bada ere, hertsidura moral eta erlijiosoetatik libratuz zijoan.

Baina neurri aundi batean gai eta forma aldetik aldakuntza hori erroto zuena Gabriel Aresti izan zen. Gauza jakifinezkoa, da eta esan beharrik ez dago, orain urte batzuk aurretik «Harri ta Herri» liburuak sortutako arrakasta. Liburu hartan, hain zuzen, lehen aipatutako erreallismo burrukalari baten lehen urratsak agertu ziren. Arestiren ikusmolde politikoak; bere bertsogintza askea; bere jokabide ikonoklasta eta era berean mito berrien mitifikatzailea; bere bertsolariengandikako molde eta neurriak... osagarri guzti horiek oso garrantzitsuak izan ziren, egilearen izena hedatuz, poesia mota hori era berri baten aintzindaritzat hartua izateko.

Poesigintza horrek zenbait poetengan influentzia izan zuen; gazteengan, batez ere. Hala ere, hori guztia momentu baten konkretatzen den poesigintza bat da. Beste «gintzak» bezala, ez da definitiboa ez eta ere jarrai liteken bide bakarra. Zergatik?

Behar bada, poesiaganako nere ikusmoldea aldatuz doa, eta gure herriaren errealtatea bera ere bai, aldatzen ari da; aldatzen eta gero ta gehiago konplikutzen. Orain urte batzuetako hauste beharrezko hark irikitasun onuragarri bat ekarri du, baina beste alde batetik gauzak begiratuta gaur egun jarraipide zehatzik ez da nabaitzen. Urte hauek, zalantza askoren erdian, bideak urratuz eta aterabideak billatzen ibiltzekoak dira, eta gainera gaur eguneko kontradizio politikoak ere oraindik zalantzan dagoen espresio bereziago bat arkitu beharko dute. Gauza askori buruz galdegin liteke eta poesiari buruz ere bai.

Poesia, nere ustez, errealtatea itxuratzeko eta refiguratzeko era bat da. Baina errealtatea itxuratzea ez da bereala errealtate horrek ematen edo presentatzen dizkigun era eta azaleko fenomenoak kontatzea. Errealtatea itxuratzea, hain zuzen errealtate hori interpretatzea ere bada; eta interpretatze hortan errealtatearen datoak beren funtsezko lotura eta arrazoiekin aztertu behar dira.

Gauzak horrela begiratuta, poesiaren ahalmena antzutu besterik ez dugu egiten berealako betebeharreri «soziologiko» batzuen funtziora jartzen badugu. Irakurle batek poesia irakurtzean ez ditu poesia hortan bere eguneroko bizitzaren figura eta imagina soilak arkitu behar. Poesia irakurtzerakoan, ordea, errealtate berrihurtatu bat arkitu behar du irakurleak; errealtate zabal sakon eta aberastuago bat.

Beste poesiak berriz, naturalismo edo panfleto hutsa den horrek, gehienetan oso gutxi balio du. Horrek ez du esan nahi nik poesiaren inplikazio gizartetsuak inñundik ere gutxiesten edo ukatzen ditudanik; inplikazio horien mundua, arrazoi eta xehetasunak sakondu egin behar direla esan baizik.

Eta gai honek beste problema batera garamazki: formaren problemara, alegia. Arte gai guztietan bezala, poesian ere formaren problemak oso garrantzitsuak dira. Izan ere poesia bat eskribitzen

edo konposatzen denean, hitz batzuek aukeratu eta erabili behar dira. Hitz horiek eta hitz horien ordenazio plastikoak ideia edo sentipenen mamia argitzen dute, eta, era berean, ideia, sentipen edo ikusmen hura bera itxuratzen lagundu. Izan ere, gure barruan dagoen material hori ez da gaitasun poetikora heltzen, era poetiko batean adierazia edo osatua gertatzen ez den bitartean.

Horrek ez du esan nahi bat zerbait espresatzen hasten denean esan behar duen horren jabe ez denik (hori irrazionalkeria hutsa litzake); horrek esan nahi duena hauxe da: lanbro artean dagoen lehen ideia eragikor hori, espresioaren bitartez eta espresio berau osatuz doan arabera, hura ere osatzen eta formaren bitartez konkretatzen joaten dela.

Horregatik, poesia egiterakoan ideia eta sentipenen mundu aberats eta zabal bat eduki behar da (ahalik eta zabalena). Baina behar da, hortaz gainera, kezka guzti horiek espresatzeko ahalmen poetikoa, eta ahalmen hori ez da berezkoa bakarrik: irudimena, sensibilitatea, etabar, espresioaren teknika batzuekin moldatzen eta menperatzen dira, eta teknika horietan poeta batentzat garrantzitsuena hizkuntzaren jakitea, da.

Poesiari buruz gauza asko esan eta definizio asko eman liteke. Poesia mailu bada, gauzak izentatzeko era bat ere bada. Eta gainera, mailua tresna denez gero, zertan erabili ongi jakin behar da. Poesiak, beste gauza batzuen artean, gaur eta hemen bi baldintza horiek sintetizatu behar ditu. Batetik, burrukarako tresna izan behar du, hori posible den neurrian. Besteti, berriz, giza-errealitate zabal eta nahasiaren espresio izan behar du; eta erreallitate hori eta bere espresioa ezin litezke gai eta forma aldetik bi definizio ximplekin dogmatikoki hertsia.

Gaur egun Euskal Herrian egiten ari den poesia ia osorik gazteen eskuetan dago. Iratzeder, Goikoetxea eta horrelako beste poeta eta gizon heldu bakan batzuetatik aparte, esan liteke euskal poesia berria gazte jendeak eskribitzen duela. Hori horrela izanik, poeta hauek oraindik beren lana hasi besterik ez dute egin. Ia gehienei liburu bakar bat baizik ez zaie argitaratu. Horrela, Joxe Azurmendi, Ibon Sarasola, Joxanton Arze, Amaya Lasa, Mikel Lasa, Gandiaga, Gorka Trintxerpe, Daniel Landart eta besteei. Lehenengo liburuaren zai dagoen poeta interesgarririk ere ez da faltatzen. Adibidez, Joan Mari Lekuona, Martin Garin, etabar. (Noizko Otsalarren poesien argitaratzea...?)

Horietatik askoren lehen liburua oso interesgarria izan da, bai forma edo bai gai aldetik. Joxe Azurmendiren «Hitz berdeak» bilduma; Arzeren «Isturizetik Tolosan barru»; Sarasolaren «Poemagintza»; Mikel Lasaren poesia fin, sakon eta landua... horiek guztiak oso lan garrantzitsuak izan dira gaurko eta etorkizuneko euskal poesiaren itxura, berezitasun eta joerak agertzen eta taxutzen hasteko.

Hala ere, horrelako lan bat denboraren zehar, argitaratuz eta irakurriz osatu behar da. Poesia, eta literatura orokorki, ez da bi egunean amaitzen eta hesten den eginkizuna; urteetan zehar osatutako obra batek bakarrik argitu lezazke egite baten molde eta berezitasun, akats eta balioak.

Alde hortatik gauzak begiratuta, literatura berriztatu baten lehen urratsak besterik ez dira eman oraindik eta azkarregi da gauzak definitu eta klasifikatzeko. Denbora denborari, eta hura izaneko da testigurik hobereana. Hala ere, ezin uka euskal poesiak inoiz baino itxura hobea presentatzen duenik. Hori oso onuragarria da, baina irakurleek ere hemendik aurrera erantzun beharko dute. Eta erantzun guztietan onena, asko eta sakon irakurtzea da. Irakurleerik gabeko literatura gauza trixte xamarra baita.

ISILTASUNA

XABIER LETE

*isilik daude harriak
isil-isilik udazken guzia.
isilik garrasirik latzenak
isilik arrano goitarra eta zezenaren marrua...*

*lehen paradisu
zelai zabal haietan
kantari zebiltzen libertatearen semeak,
polborazko loreak eskuetan
eta kazkezurrean fantasia mugarik gabeak.*

*baina otsoak pasa zirenean
gero pasa ziran
azeri eta zakur amorratuak.*

*paradisu desiatu hartako zelaietan
ximeldu ziran loreak
eta legortu belar gozoak
belar gozoen zuztar
usai eta landareak...*

*isilik daude harriak
isilik haizea
etxe eta kaleak,
isil-isilik daude berriro
gauza guztiak
udazkenean.*